Nafarroako Gardentasunaren Kontseilua Gardentasunari buruzko Foru Legeak (GFL) araututako organoa da, eta haren eginkizunetako bat da gardentasunaren eta informazio publiko eskuratzearen inguruko prestakuntza eta sentsibilizazio jarduerak sustatzea.

GFLak ezarritako aginduetara erabat egokitzeke lana erraztu nahian, Nafarroako Gardentasunaren Kontseiluak gida hau ondu du, Foru Komunitatearekin lotura duten sozietate publikoentzat baliagarria izanen delakoan, GFLak gardentasunaren arloan ezartzen dituen betebeharrak betetzeko tenorean. Gida honen helburua da dokumentu batean biltzea, orientatzeko besterik ez bada ere, gardentasun kultura bat aurrera eramateko informazio garrantzitsuena eta zehatzena, eta, era berezian, sozietate publikoen motibazioan

eragitea, GFLan ezarritako betebeharrak bete ditzaten.

Publizitate aktiboari dagokionez (gardentasun proaktiboa), maiatzaren 17ko 5/2018 Foru Legeak, Gardentasunari, informazio publiko eskuratzeari eta gobernu onari buruzkoak (hemendik goiti GFL), hirugarren xedapen gehigarrian arautzen du GFLan aurreikusitako publizitate aktiboko betebeharrak berrien ondoriozko informazioak egoitza elektronikoa edo webgunean eskuragarri izateko neurriak hartu behar direla, gehienez urtebeteko epean, GFLak indarra hartzen duen egunetik kontatuta; epe hori 2019ko abuztuaren 23an amaitzen da. Informazio publiko herritarren eskura jartzeari dagokionez (gardentasun erreaktiboa) GFLaren xedapenak erabat aplikagarriak dira 2018ko abuztuaren 23az geroztik.

II GIDAREN HELBURU DEN EREMU SUBJEKTIBOA

GFLaren 2.1.b) artikulua araber, lege honen xedapenak aplikatu behar zaizkie Nafarroako Foru Komunitatearen Administrazioarekin lotura duten sozietate publikoei eta, GFLaren ondoretarako, haren 2. artikulua 4. puntuak xedatzen duenaren arabera, sozietate publiko horiek administrazio publikotzat hartzen dira. Beraz, GFLaren xede nagusia da herritarrek jakiteko duten eskubidea araubidez bermatzea eta, ahal den guztietan, jakiteko eskubide subjektibo hori, eta kasuan kasu, dagoen informazio publikoa eskuratzeko eskubidea, eraginkortasunez gauzatzeko bidea eskaintzea, horretarako betebeharrak zehatzak ezarriz Administrazio Publikoei. Administrazioekiko Auzien 2. Epaitegi Zentralak 2018ko ekainaren 22an emandako 46/2018 Epaiak adierazten duenez,

«Administrazio publikoak zergadunengandik heldu diren funtsen bidez finantzatzen dira eta haien misio nagusia da herritarren zerbitzura egotea; beraz, haiek sortzen duten eta biltzen duten informazio guztia herritarrena da. Bi alderdi nabarmendu daitezke informazioa eskuratzeko eskubideari dagokionez: Gardentasun proaktiboa da organismo publikoek beren jarduera, aurrekontu eta politikei buruzko informazioa argitara-

tze eta ezagutarazteko duten betebeharra. Eta gardentasun erreaktiboa: Herritarrek funtzionario publikoei edonolako informazioa eskatzeko eta bidezko erantzun dokumentatua jasotzeko duten eskubidea da».

Nafarroako Ondareari buruzko apirilaren 4ko 4/2007 Foru Legearen 103.b) artikulua xedatzen du sozietate publikoak Nafarroako Foru Komunitatearen enpresa-ondare publikoaren osagaietakoak direla. Era honetan definitzen ditu artikuluko horrek:

«Nafarroako Foru Komunitateko eta haren mendeko erakunde publikoetako sozietate publikoak dira Foru Komunitateko Administrazioaren edo/eta haren mendeko erakunde autonomoen zuzeneko nahiz zeharkako partaidetza duten sozietateak, partaidetza horrek sozietatearen kapitalaren gehiengo osoa osatzen badu. Orobat dira sozietate publikoak Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioak edo/eta haren mendeko erakunde publikoek administrazio, zuzendaritza edo zaintza organoetako kideen erdia baino gehiago zuzenean nahiz zeharka izendatzeko gaitasuna dutenak; edo sozietateak jaulkitako partaidetzei dagozkien botoen gehiengoaren bidez».

Sozietate publikoak dira, beraz, hiru irizpide ez metagarri betetzen dituztelako:

- a) Kapital sozialaren kontrola: kapital sozialaren gehiengo absolutuaren jabetza zuzena edo zeharkakoa.
- b) Organoen kontrola: gobernu edo zuzendaritza organoetako kideen erdiak baino gehiago izendatzea.
- c) Funtzionamenduaren kontrola: sozietateak jaulkitako partaidetzei dagozkien botoen gehiengo izatea.

Kontuen Ganbarak 2018ko azaroan Nafarroako 2017ko Kontu Orokorrei igorritako txostenaren arabera, honako hauek ziren (10. or.):

- Corporación Pública Empresarial de Navarra, SLU. (CPEN) kapitalaren %100arekin Nafarroako Foru Komunitatearen Administrazioak zuzen parte hartzen du enpresan, eta zeharka, CPENaren bidez eta haren sozietateen bidez, hurrengo 16 sozietate hauetan:
- Centro Europeo de Empresas e Innovación, SL (CEIN), partaidetzaren %100arekin.
- Centro Navarro de Aprendizaje de Idiomas, SA. (CNAI), partaidetzaren %100arekin.

- Ciudad Agroalimentaria de Tudela, SL. (CAT), partaidetzaren %100arekin.
- Gestión Ambiental de Navarra, S.A. (GAN), partaidetzaren %100arekin.
- Instituto Navarro de Tecnologías e Infraestructuras Agroalimentarias, SA. (INTIA), partaidetzaren %100arekin.
- Navarra de Infraestructuras de Cultura, Deporte y Ocio, S.L. (NCIDO) partaidetzaren %100arekin.
- Navarra de Infraestructuras Locales, S.A. (NILSA) partaidetzaren % 100arekin.
- Navarra de Servicios y Tecnologías, S.A. (NASERTIC) partaidetzaren % 100arekin.
- Navarra de Suelo y Vivienda, SA. (NASUVINSA), partaidetzaren % 100arekin.
- Potasas de Subiza, SAU. (POSUSA), partaidetzaren % 100arekin.
- Salinas de Navarra, SA. partaidetzaren % 76arekin.
- Sociedad de Desarrollo de Navarra, SL. (SODENA), partaidetzaren % 100arekin.
- Start Up Capital Navarra, SL., partaidetzaren % 68,46arekin.
- Trabajos Catastrales, SA. (TRACASA) TRACASA Instrumentala, SL., partaidetzaren %100arekin.

III

GARDENTASUNARI BURUZKO FORU LEGEA

APLIKATZEAN SOZIJETATE PUBLIKOAK LOTZEN

DITUEN EREMU OBJEKTIBOAK

1. PUBLIZITATE AKTIBOAK

1.1. Publizitate aktiboaren printzipioak (GFLaren 5. art.)

GFLaren eremu subjektiboan jasotzen diren entitate guztiei bezala, GFLaren 5. artikuluan aurreikusitako irizpide orokorrak Foru Komunitateko Administrazioari lotutako sozietate publikoei aplikatzen ahal zaizkie. Printzipio orokor horiek, publizitate aktiboari dagokionez, hauetan bildu daitezke:

- a) Sozietate publikoek etengabe eman eta zabaldu behar dute beren esku dagoen eta beren jarduerari buruzkoa den informazioa, egitasunez eta objektibotasunez, izan ere, publikoa da, printzipioz, haien esku, zaintzapean edo kontrolpean dagoen informazio guztia, legeak aurreikusten dituen salbuespenak salbuespen.
- b) Argitaratze aktiboaren betebeharrak bitarteko elektronikoen bidez beteko dira, kode irekiko softwarea erabiliz eta sustatuz, hala nola estandar ireki eta neutralen erabilera, teknologia eta informatikaren arloetan.
- c) Informazioa modu argian, egituratuan, eskuragarrian eta ulergarrian argitaratu behar da.

- d) Informazioa argitaratzerakoan kontuan hartu behar dira gardentasunaren arloko betebeharrak GFLaren 31. artikuluan ezartzen dizkien mugak eta, batez ere, datu pertsonalen babeserako eskubidea.

1.2. Publizitate aktiboaren printzipioa

Gardentasunaren arloko betebeharrak egoki betetzeko, GFLaren 11. artikuluan ezartzen duenaren arabera, sozietate publikoek hauek egin behar dituzte:

- a) Beren jardueraren gardentasuna bermatzeko zabaldu beharreko informazioa, prestatu, eguneratu, hiru hilean behin gutxienez, eta zabaldu modu iraunkorrean, egiazkoan eta objektiboan, norberaren egoitza elektronikoen edo webgunearen bidez.
- b) Apartatu honen a) letran aipatzen den informazio publikoaren inbentario bat egin eta hiru hilean behin zabaldu, informazio hori non aurki daitekeen adierazita.
- c) Informazio publikoa kudeatzeko sistematik eta politikak garatu, haren fidagarritasuna, etengabeko eguneratzea, integritatea eta benetakotasuna bermatzeko.

- d) Informazio publikoa kudeatzeko neurriak hartu, hura lokalizatzea eta zabaltzea erraza izan dadin, eta eskuragarritasuna, elkar-eragingarritasuna, kalitatea, egiazkotasunaren kontrola eta argitaratutako informazioaren berrierabilera sustatzeko.
- e) Informazioa modu argi, egituratu eta ulergarrian argitaratu. Informazio guztia formatu erabilerraz eta ulergarritan egonen da, erabilerraztasun unibertsalaren eta pertsona guztiendako diseinuaren printzipioekin bat.
- f) GFLak pertsonen aitortzen dizkien eskubideak zabaldu, behar bezala erabiltzeko aholku eman erabiltzaileei, eta informazioa bilatzen lagundu.
- g) Informazio publikoa epe hauetan egonen da argitaratuta:
 - Izatezko egoerak deskribatzen dituen informazioa argitaratuta egonen da, gutxienez, egoera horiek irauten duten bitartean.
 - Kontratu, hitzarmen eta diru-laguntzei buruzko informazioa argitaratuta egonen da haietatik heldu diren betebeharrak irauten duten bitartean eta, gutxienez, haiak amaitu eta beste hamar urtez.
 - Informazio ekonomikoa sortu zen unetik hasi eta gutxienez hamar urtez egonen da argitaratuta.

1.3. Betebeharren mapa

GFLaren 19. eta 28. bitarteko artikuluetan ezartzen diren zerrendak, aplikatzekoak edo ez, subjektu derrigortuen arabera, informazio publikoaren gutxienezko betebeharrak gisa ulertu behar dira, izan ere, horrez gain, 29. artikulua ezartzen duenaren arabera, argitara eman behar da herritarren interesekotzat jotzen den beste edozein informazio publiko,

eta batez ere, maizenik eskatzen dena. Horri erantsi behar zaio publikitateari dagokionez araubide zabalagoa aurreikusten duten xedapen berariazkoetan (18.2 artikulua) ezartzen diren publikitate betebeharrak. 7. artikulua arabera informazioa argitara eman behar da subjektu derrigortuen egoitza elektronikoa edo webguneetan. Horretarako, gomendagarria izan daiteke Gardentasun Atari bat sortzea, sozietate horren egoitza elektronikoa edo webgunean.

Ondoren, orientatzeko besterik ez bada ere, sozietate publikoen publikitate aktiboaren betebeharren maparen osagaiak deskribatzen dira:

A. Institutuzioari, antolaketari eta plangintzari buruzko informazioa

1. Sozietateen sorrera, partaidetza eta funtzionamenduari buruzko erabakiak.
2. Aurrera eramaten dituzten eginkizunak, aplikatu beharreko araubidea eta barne antolaketaren egitura, organigrama eguneratua erantsita, eta bertan adierazita haien organoen egoitzak, harremanetarako bideak eta jardueraren arloetako arduradunak nor diren, hala nola haien zer eginkizun dagozkien.
3. Izendapen libreko zuzendaritza karguetan ari diren langile mugagabeen edo beselako kontratu motak dituzten langileen lanpostuen zerrenda.
4. Nor diren langileak ordezkatzeko dituzten organoetako kideak, eta zenbat diren liberatu sindikalak, zer erakunde sindikalekoak diren, bai eta liberazio horiek departamentuetan eta erakundeetan eragiten dituzten kostuak eta erabilitako ordu sindikalen kopurua ere.
5. Langile beharren hornidura eta langileak hautatzeko prozesuak.
6. Hitzarmenak, erabakiak eta itunak, lan arlokoak eta arlo sindikalekoak.

7. Jarduera publiko edo pribatuarentako bateragarritasuna baimendu edo onartzei buruzko ebazpenak edo erabakiak, enplegatu publikoari eragiten dizkietenak.

8. Ematen diren zerbitzuen katalogoa, zerbitzuen kartak, bai eta zerbitzuen funtzionamenduari buruzko kexak aurkezteko prozedura ere.

9. Tramitazioa hasia duten planak eta programak, urtekoak nahiz urte anitzetarakoak.

10. Urterako eta urte anitzetarako onartuta dauden planak eta programak, eta horren barnean, haien helburuak, jarduerak, bitartekoak eta betetzeko behar diren denborak, betetzeko arduraren organoak, eta haien jarraipena eta ebaluazioa egiteko bidea ematen duten adierazleak.

11. Plan eta programen betetze mailari buruzko informazioa.

12. Urteko diru-sariak, izendapen libreko zuzendaritza karguetan ari diren langileen lanpostuei dagozkien osagarriak aletuz, halakorik bada.

13. Datu pertsonalen tratamendurako jardueren zerrenda.

B. Goi kargudunei eta zuzendaritzako kideei buruzko informazioa

1. Argitara eman eta eguneratuta izan behar dute honako informazio hau, goi kargudunei eta zuzendaritzako eginkizunak dituzten gainerako kideei buruzkoa, barne dela goi zuzendaritzako araubidean kontratatutako langileei buruzkoa ere:

- a) Identifikazioa eta izendapena.
- b) Datu biografiko profesionalak.
- c) Telefonoa eta helbide elektronikoa harremanak izateko.
- d) Eginkizunak.
- e) Zein erakunde publikotako eta merkataritza sozietateetako kide anitzeko or-

ganoko eta zuzendaritza eta administrazio kontseiluko kide diren, hala bada edo izan bada, bai eta zein elkarte, fundazio eta entitate pribatutako zuzendaritza organoetako partaide den edo izan den azken lau urteetan.

- f) Bateragarritasuna baimendu edo onartu bazaio, zein jarduera publiko eta pribatutarako izan den.
- g) Sozietate publikoko zuzendari kudeatzailearen jardueren aitortpena.

C. Garrantzi juridikoa duen informazioa.

1. Sozietate publikoetako administrazio kontseiluen aktak, datu pertsonalak bereizi ondoren.

Bidezkoa da betebeharrak hau harmonizatzea publikitate aktiborako 5/2018 Foru Legearen 31. eta 32. artikuluetan jaso diren mugekin. Hemen garrantzitsua da ondoko hiru muga hauek kontuan izatea:

- a) Ekonomian eta merkataritzan interes legitimoak izatea (31.1.f art.). Horri dagokionez, Gardentasunaren eta Gobernu Onaren Kontseiluaren irizpidea da kasuan kasuko entitate edo sozietateen interes ekonomiko eta komertzialei ez zaiela kalterik egiten argitara emateagatik batzarraren etorleak, gai-zerrenda, batzarra egin deneko lekua eta denbora eta eztabaidagai nagusiak (martxoaren 8ko 526/2016 eta uztailaren 13ko 0239/2018 ebazpenak).
- b) Datu pertsonalen babeserako eskubidea (32.1 art.). Lehenik eta behin, datu pertsonalen babesari dagokionez, 5/2018 Foru Legeak ezartzen du aktetan diren datu pertsonalak bereiztu behar direla. Hala ere, 5/2018 Foru Legearen 32.1 artikulua, datuen babesari buruz ari dela, Gardentasunari, Informa-

zioa Eskuratzeari eta Gobernu Onari buruzko Legearen (LTAIBG/GIEGOL, hemen GFL) 15.2 artikularen antzeko hitzekin, ezartzen duenaren arabera, «Eskatutako informazioan identifikazio hutseko datuak jasotzen direnean, foru lege honen aplikazioaren mende dauden administrazio, instituzio, entitate edo pertsona fisiko edo juridikoen antolaketa-ekin, funtzionamenduetarekin edo jarduera publikoarekin lotutakoak, organo eskudunak aukera emanen du informazioa eskuratzeko».

Gai honi buruz, Gardentasunaren eta Gobernu Onaren Kontseiluaren irizpidea hau da: inplikaturik dauden datu pertsonalak dira kide anitzeko organo erabakitzailearen batzarrean elkartutako kideen -gure kasuan administrazio kontseiluko kideen- izenak, deiturak eta karguak, eta hor aplikatuko da GFLaren 15.2 artikuluan ezartzen dena, hau da: *Oro har, organoaren antolaketa-ekin, funtzionamenduetarekin edo jarduera publikoarekin lotutako identifikazio hutseko datuak jasotzen dituen informazioa egonen da eskuragarri, salbu eta, kasu zehatzetan, datu pertsonalen babesa gailenduko balitz, edo konstituzioaren babespeko beste eskubideren bat, argitaratzearen inguruko interes publikoaren gaitetik*. Ikus daitekeenez, irizpide hori erabat egokitzen da arestian aipatu den 5/2018 Foru Legearen 32.1 artikularekin.

Izan ere, Gardentasunaren eta Gobernu Onaren Kontseiluak argudiatzen duenez (ekainaren 13ko 0239/2018 Ebazpena):

«... benetan, beren karguagatik batzarrean parte hartzen duen kide baten identifikazioaren kasuan, GFLa bete behar duen eta, beraz, gardentasunaren arloko betebeharrak dituen entitate bateko zuzendaritza-organoren batzarrean parte hartzen

baitu, haren identifikazioa, bere karguagatik baitago han, zuzen-zuzen lotzen da kontuak errenditzeko printzipioarekin, hori delarik, hain zuzen ere, GFLaren oinarria. Beraz, ondorioztatuta daiteke eskatutako informazioa eskuratzeko ez diola kalterik egiten CIMParren batzarretara joaten direnen datu pertsonalen babesari.

Bestalde, egia da, halaber, gerta daitekeela aktetan egiten diren aipamenduetan erabakimena duten funtzionario publikoak ez diren pertsona fisikoak agertzea, eta pertsona horiek identifikatuta egon daitezkeela eskatutako dokumentazioan.

Kasu horretan, betiere pertsona fisikoak badira eta ez pertsona juridikoak, Datu Pertsonalen Babesari buruzko abenduaren 13ko 15/1999 Lege Organikoaren 3. artikuluan datu pertsonala definitzen den moduan arabera, datu horiek dokumentutik kendu behar dira.».

- c) Erabakiak hartzeko prozesuan eskatzen den konfidentzialtasunaren edo sekretuaren bermea (31.1.b art.). Salbuespen horrek erabakiak hartu aurreko barne eztabaidak, argitara atera gabe, babesteko aukera ematen du, zenbait baldintzapean.

Salbuespen hori justifikatzen da saihestu nahi delako erabakitze prozesua etorkizunean kolokan gelditzea, izan ere, organo erabakitzaileen aktak argitara emateak galaraziko lieke organo horietako kideei beren ikuspegiak libre eta osorik adieraztea, beren burua zentsuratuko bailukete, eztabaidagaitari buruz duten iritzia eman gabe. Baina salbuespen hori aplikatzeko ez da aski arrazoi hori ateratzea, aitzitik ere, argudiatu egin behar da, eta argi aztertu behar da arrisku horrek erabakitze prozesuari nola eraginen liokeen, egiaz eta modu zehatzean, alegia, elementu nabarmenak eskaini behar dira, erabakitze prozesua kaltetzeko arriskua

aurrekusteko modukoa dela, eta ez hipotesi hutsa, ondorioztatzeko (kaltearen testa). (Europako Batasuneko Justizia Auzitegiaren Ebazpenak, 2015eko ekainaren 11koa eta irailaren 18koa).

Salbuespen hori arrazoiz ematen dela erakusten denean, ez litzateke beharrezkoa izan erabakia hartzeko eztabaidak ezkatzea, aski izanen bailitzateke erabakia hartzerakoan beren iritzia eman zuten organo kide guztien datu pertsonalak bereiztea (izen-abizenak ezabatzea), barnean direla beren kargua betetzeko funtzioetan administrazio kontseilura joan diren kideen datu pertsonalak.

D. Informazio ekonomikoa, aurrekontuei buruzkoa eta finantzaria

1. Sozietate publikoen aurrekontuak, haien aldaketak eta haien betetze mailari buruzko informazio eguneratua eta ulergarria.

2. Urteko kontuak.

3. Kanpoko kontrol organoek urteko kontuei buruz emandako auditoria eta fiskalizazio txostenak.

4. Aurrekontu egonkortasunaren eta finantza iraunkortasunaren helburuak betetzeari buruzko informazioa, bai eta horretarako onetsitako planak eta haien jarraipena.

5. Sektore publikoko enpresen jarduketari, inbertsioei eta finantzaketari buruzko urteko programak.

6. Finantza-entitateetan beren izenean dituzten banku-kontuei buruzko informazioa, azaroaren 11ko 16/2016 Foru Legean, Kontu Irekiei buruzkoan, ezarritako moduan eta baldintzetan.

7. Mailegu eta kreditu eragiketarako, finantza errentamendukoak, hala nola abalak eta bermeak.

E. Kontratazio publikoari buruzko informazioa

Kontratu Publikoari buruzko apirilaren 13ko 2/2018 Foru Legearen 4. artikulua xedatzen duenaren arabera, sozietate publikoek hitzartzen dituzten kontratu publikoek legeak ezartzen duena bete behar dute. Nafarroako Kontratazio Atariaren bidez antolatuko da kontratazio publikoen informazioa, eta honako hauek adierazi behar dira:

1. Entitateei eta kontratazio organoari buruzko informazio orokorra, esate baterako, harremanetarako helbidea, telefono eta fax zenbakiak, posta helbidea eta posta elektronikokoaren kontua.

2. Honako hauei buruzko informazioa: kontratuak, esparru-akordioak, adjudikatutako kontratuak, eman gabe deklaraturakoak, uko-egiteak edo atzera-egiteak, deuseztaturako lizitazioak, suntsiarazitako kontratuak, suntsiarazpena eragin duten kausak eta haren ondorioak adierazita, eta kontratazioa egoki kudeatzeko beharrezkotzat edo komenigarritzat jotzen den beste edozein.

3. Abian diren lizitazioei buruzko informazioa. Eskuragarri egonen dira kontratua gauzatzeko baldintza guztiak eta, behar denean, gainerako dokumentazio osagarria.

4. Kontratazio mahaien osaera eta aktak.

5. Formalizatutako kontratuak, alderdi hauek adierazita:

a) Xedea, kontratu mota eta kontratazio organoa.

b) Formalizazio data.

c) Exekuzioaren hasiera eguna.

d) Iraupena.

e) Adjudikaziorako erabilitako prozedura.

f) Lizitazio eta adjudikazio zenbatekoak.

g) Parte hartzen duten lizitatuzaileen kopurua, identifikatuta onartu eta baztertu direnak, eta, kasua bada, prozeduran hautatu direnak.

h) Adjudikazio-hartzailearen identitatea.

- i) Adjudikazio-hartzailearen kaudimen tekniko eta ekonomiko.
- j) Adjudikaziorako irizpideak, bai balorazio automatikoa egitekoak bai judizio-balioaren eta ponderazioaren menpe daudenak.
- k) Eskaintza ekonomikoak, proposamen teknikoak eta hobekuntzak konparatzen dituen taula, baldin badaude, puntuazio guztiak adierazita irizpide bakoitzaren arabera, eta arrazoiaren laburpena. Erabaki eta txosten juridikoak, teknikoak eta kontu-hartailtzakoak, kontratazio prozesuarekin lotutakoak.
- l) Kontratazio prozesuari lotutako erabaki eta txosten juridikoak, teknikoak eta kontu-hartailtzakoak.
- m) Onetsitako aldatketak, kontratu osagarriak eta kontratuen luzapenak.
- n) Kontratuaren lagapenari eta azpikontratazioari buruzko informazioa, bertan zehaztuz lagapen-hartzaileak edo azpikontratatistak nor diren, zenbatekoa, eta kontratu bakoitzean azpikontratatutako bolumenaren portzentajea.
- ñ) Kontratuaren amaieran egindako likidazioaren zenbatekoa.
- o) Prezioen berrikuspenari buruzko informazioa, bai eta kontratatutako presazioaren amaierako kostuan izandako desbideratzea adjudikatutako zenbatekoarekin alderatuta.

6. Kontratisten ez-betetzeengatik ezarritako zigorrak.

7. Kontratu txikien zerrenda, hiru hilean behin gutxienez, bertan zehaztuz, organo edo entitateen arabera, haien xedea, zenbatekoa, iraupena eta zer portzentaje egiten duten adjudikatutako kontratu guztiekin alderatuta.

8. Datu estatistikoak, kontratazio organoen arabera, zehaztasunak emanez kontratu publikoei buruzko foru araudian aurreikusitako prozedura eta modu bakoitzaren bidez adjudikatutako kontratuen aurrekontu bolumenaren portzentajeari buruz.

9. Maiz egiten diren galderei buruzko informazioa eta kontratuen edukia argitzeko azalpenak.

Publizitate hau, esanenez, Nafarroako Kontratazioen Atariaren bidez egituratzen da, baina Gardentasunaren eta Gobernu Onaren Kontseiluaren 2017ko memorian azalduenez, datuak plataforma zentralizatueta bakarrik argitaratzea, Nafarroako Kontratazioen Ataria kasu, ez da jardunbide egokia, argitasun eta eskuragarritasun betebeharreri begira, izan ere, plataforma horiek diseinatuta daude gardentasunarekin zuzen lotzen ez diren beste asmo batzuetarako; kontuak emateko beharrezkoak ez diren datu eta informazio asko ematen dituzte, eta erabiltzeko zailak dira, administrazio gauzetan iaioak ez diren herritarrentzat. Horregatik, ez da egokia publikizitate aktiborako bide bakar hori erabiltzea eta, alde batera utzita Nafarroako Kontratazioen Atarian kontratu egileari dagozkion profilak derrigor argitaratu beharra, gomendagarria da sozietate publikoek beren webguneetan ere argitaratzea Gardentasunaren Foru Legeak eskatzen dituen datuak.

F. Lankidetzaren hitzarmenei, programa-kontratuari, kudeaketa-esleipenei eta baliabide berekietarako mandatuei buruzko informazioa

1. Argitara eman behar dira lankidetzaren hitzarmenak, programa-kontratuak, kudeaketa esleipenak eta baliabide berekietarako mandatuek, eta horietarako muga bakarrak izan diren datu pertsonalak babesteari buruzko araudian eta 5/2018 Foru Legearen 31. artikuluan ezarritakoak.

2. Argitaratu behar dira sozietateek -tarteke ente gisa- egiten dituzten mandatuek, botere adjudikatzaileak diren aldetik, bai beraien kontrolatzen dituen botere adjudikatzaile-

leari, bai botere adjudikatzaile beraren beste tarteke enteei (apirilaren 13ko 2/2018 Foru Legearen 8.3. artikulua).

G. Ondareari buruzko informazioa

Sozietatearen jabetzako higiezin zerrenda argitaratu beharko dute, bai beste batzuen ere, baldin eta haien gainean eskubide errealen bat badute, honako hauek adierazita, gutxienez: bakoitzaren kokapena, azalera, ezaugarri nagusiak, izena, katastroko erreferentzia, hura atxikia duen unitatea edo erabilera, salbu eta, pertsonak babesteko arrazoi justifikatuak direla-eta, komeni bada ez argitaratzea.

2. INFORMAZIO PUBLIKOAK ESKURATZEKO ESKUBIDEA

2.1. Informazio publikoaren eskuratzeko eskubidearen egikaritzea

Informazioa eskatzen duen pertsonak ez du zertan argitu zergatik eskatzen duen. Hala ere, arrazoi horiek azaltzen ahal ditu, eta kontuan hartzen ahal dira, ebazpena ematerakoan. Nolanahi ere, arrazoirik ez emate hutsagatik ezin izanen da eskaera atzera bota.

Eskaera aurkez daiteke eskatzailearen nortasunaren berri izateko modua eskaintzen duen edozein bidetatik, eta ez da beharrezkoa izan haren egiaztapenik.

Eskaeran argi eta zehatz adierazi behar da zer informazio eskatzen den, eskuratzeko nahi den forma edo formatua eta harremanetarako helbide bat, elektronikoa ahal bada, komunikazioak errazteko.

Eskaerak informazio hori aski argi eta zehatz adierazten ez duenean, hamar eguneko epean zehazteko eskatuko zaio, bitartean bertan behera utziz ebazteko gehieneko epea

eta ohartaraziz, hala egiten ez bada, uko egiten diola ulertzen ahal dela. Nolanahi ere, laguntza emanen zaio bere eskaera zehaztu dezan.

Informazio publikoaren ardura duten unitateek eta informazio bulegoek, bai eta eskaera aurkeztu edo zuzentzen den organo edo entitateak ere, behar den laguntza emanen dute informazioa eskuratzeko eskubidearen egikaritzea errazteko, eskaera egiteko erabiltzen den bitarteko edozein dela ere, kolektibo batzuen behar bereziak kontuan hartuta.

Administrazioekiko Auzien 6. Epaitegi Zentralak 2018ko otsailaren 23an emandako epaiak (prozedura arrunta 35/2017) adierazten du ezen «gai horiek publikizitate aktiboaren betebeharreri atxikiak izanik ere, horren ondorioz ezin ukatu da eskatutako informazioa eskuratzeko herritarrek duten eskubidea, argitara eman den informazioarekin, osotara edo hein batean, bat egiten badu ere, Legeak berak bereizten baititu gardentasun printzipioaren arabera ezarritako betebeharrak. Horretarako, alde batetik, publikizitate aktiboa eskatzen du, eta bestetik, III. kapituluak (12. artikulua eta hurrengoak) informazio publikoaren eskuratzeko eskubidea aitortzen du, eskubide subjektibo hau ezin eragotzi edo baldintzatu delarik, publikizitate aktiborako Legeak ezartzen dituen betebeharrak betetzeagatik».

2.2. Eskubidea egikaritzeko prozeduraren inguruko oharra

Sozietate publikoek argi adierazi behar dute beren webgunean beren esku duten informazioa eskatzeko eskubidea dutela herritarrek, eta eskubide hori gauzatzeko prestatu dituzten bideak modu argian eskaini behar dituzte.

Erantzunak kontuan izan behar du gerta daitekeela informazioa eskuratzeko eskubideak mugaren bat izatea, besteak beste, GFLaren 31. artikuluan ezarritakoak, edo 32.

artikuluko datu pertsonalen babeserako eskubidearen ingurukoak, eta halaber GFLaren 37. artikulua eskaera ukatzeko aurreikusitako arrazoiak bat.

Ematen den erantzunean, informazio eskatzaileari informazio hobea eman beharrez, gomendagarria da adieraztea errekamazioa aurkezten ahal dela Nafarroako Gardentasunaren Kontseiluaren aurrean, eskaeraren erantzuna jakinarazten den egunetik hilabeteko epean, edo administrazioarekiko auzi-errekurtsoa, epaitegi eskudunean, bi hilabeteko epean.

Kasu bakoitzean ebazteko eskumena duen organoak lehenbailehen eman beharko du eskatutako informazio publikoa, edo, bestela, lehenbailehen jakinaraziko dizkio eskatzaileari informazio hori ukatzeko arrazoiak, beranduenik hilabete batean, eskaera sozietate publikoaren erregistroan sartu denetik, oro har. Informazioa ukatzeko arrazoiak hirugarrenek jabetza intelektualeko edo industrialeko duten eskubidea baldin bada, eskubide horien titularra den pertsona fisikoa edo juridikoa zein den adierazi beharko da, ezaguna izanez gero, edo, bestela, zeinek laga duen eskatutako informazioa.

Epe hori hilabete bat gehiago luzatzen ahalko da, baldin eta, informazioaren bolumena eta konplexutasuna ikusita, ezinezkoa bada lehen adierazitako epean ematea. Kasu horretan, hamar eguneko epean gehienez, eskatzaileari adierazi behar zaio zer arrazoi izan diren ebazpena epe horretan emateko.